

Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea (HiTT)

Micaela Portilla Ikergunea (EHU, Arabako Kanpua, Gasteiz)

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Gorka Elordieta eta Elena Castroviejo

gorka.elordieta@ehu.eus; elena.castroviejo@ehu.eus

<http://www.hittlinguistics.eus>

I. Aurkezpena

Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea (HiTT), A mailako Ikerketa Talde Kontsolidatua (erref. IT1537-22) 90. hamarkadan sortu zen.

Giza-hizkuntza gaitasuna aztertzen du, bi ikerketa-arlo nagusiren inguruan: (a) hizkuntzaren arkitektura eta bere ezaugarri formalak; eta (b) hizkuntzaren eta beste sistema kognitibo batzuen arteko harremana.

Jatorriz hizkuntzalaritza formala (esperimentala ere fonetika-fonologian),

baina

Hizkuntzaren filosofiako ikertzaile talde aktibo bat batu da, eta Autismo Araba Elkartearekin hasitako lankidetzarekin, nabarmen zabaldu da taldearen disziplinarteko izaera eta ikerketa-lerro berrien garapena, jakintza-arlo teoriko zein esperimentaletan.

II. Ikerlerroak

1. Gaitasuna

HiTT hiztun tipikoen **hizkuntza gaitasunaren ikerkuntzan erreferente** izan da. Hizkuntzaren arkitekturarekin eta hizkuntzaren moduluen arteko inferfazearekin lotutako gaiak landu ditu batez ere. Besteren artean:

(Morfo)Sintaxia

Argumentu egitura eta haren oinarri sintaktikoa (Kasu Teoria eta A-mugimendua); denbora-harremanen gramatika; ezeztapena; konparazio egiturak; A-marra mugimendua; perpau nagusien eta mendeko perpauzen hitz hurrenkeren arteko asimetria; elipsia; konplementatzaileak eta euskararen aditz jokatuaren lekua; ezker periferia eta diskurtsoaren egitura.

Fonologia

Euskarazko, gaztelaniazko eta beste hizkuntza erromantze batzuetako intonazioaren ezaugarriak eta egitura prosodikoa; informazio egituraren prosodia; hizkuntz-ukitua eta intonazioa.

Semantika

Galde- eta harridura-perpauak; modalitatea, gradabilitatea eta ebaluatibitatea; informazio- eta diskurtso-egituren arteko korrespondentzia; esanahi motak; hizkera gutxiesgarria; polisemiaren azterketa eta harekin lotutako gaiena (ko-predikazioa esaterako).

Apurka-apurka **pertsona ez-neurotipikoen** hizkuntza gaitasuna aztertzearekin ere lekua egin diogu gure helburu berritzaileen artean. Egun, batez ere **autismoa** diagnostikatutako pertsonak ikertzen ari gara, mintzatzaileak zein ez-mintzatzaileak.

2. Portaera

• Soziofonetika

Hizkuntz-barrietateen arteko ukipeneko fenomenoak. Orain arte, fonetika-fonologian. Adibidez, maila suprasegmentalean:

Hego Euskal Herriko gaztelanian dauden euskarazko intonazioaren ezaugarriak.

Ezaugarri horiek zenbait faktore sozialekin lotuta daude, kontaktua zein estua den, esate baterako, edota hiztun horiek euskararekiko eta euskal talde etnolinguistikoarekiko dituzten jarrerekin.


Maila segmentalean ere: bokalak eta kontsonanteak.

• Populazio ez-neurotipikoa

Pertsona neurotipikoen hizkuntza-portaeraren ikerketaren batera, **pertsona ez-neurotipikoen** hizkuntza-portaera. Autismoa eta hizkuntzaren arteko harremana aztertzekeo laborategia, *Language in Neurodiversity Lab* (*Lindy Lab*: www.lindy-lab.eus), Autismo Araba Elkartearekin elkarlanean.



Irudi honek gure **ikertaldearen ikerlerroak** erakusten ditu labur-laburrean.



III. Zertan lagundu diezaguketzen hizkuntza-teknologiako tresnek

✓ **Euskal Herriko hizkuntza-teknologiako taldeen laguntza/orientabidea alde aurretik eskertuz.**

Automatizatoruntz bideratzea, lana erraztearen aldera (gaztelaniarako ere). Adibidez:

- Idatzizko edota ahazko korpusetatik datuak lortu automatikoki. Etiketatuak morfosintaktikoki, hobe.
- Audiozko artxiboak ortografikoki transkribatu, automatikoki (Whisper?) Kontutan hartu behar da populazio hau izango dugula ere: Autismoaren Espektroko Nahasmendua edo Hizkuntzaren Garapenaren Nahasmendua duten umeak.
- Korpusak anotatzeko tresnak, bilaketak egin ahal izateko eta datuak estatistikoki aztertu ahal izateko.
- Audiozko artxiboen transkripzio fonetiko automatikoa.
- Audiozko artxiboen segmentatze automatikoa (esalditan, hitzetan, silabetan, edo fonotan) (MAUS? baina Linux eskatzen du; Montreal Forced Aligner?)
- Intonazioaren transkripzio automatikoa ToBI sisteman (doinu-azentuek, muga tonuak). Eti_ToBI ? (Elvira-García et al. 2016)
- Testua edo audioa duten *on line* esperimentu linguistikoak egiteko *software intuitiboak* (adib., aukera anitzetatik zuzena dirudiena hautatu, (ez-)gramatikaltasunaren inguruko ebaluazioak likert eskaletan, eta abar)
- Behar gehiago sor daitezke

